

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jon Peli Uriguen Ansola

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1968)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

EGB-141

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2023-07-06
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. German Uriguen Ormaetxea `Etxegiña´

- **Erref:** EGB-141/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:02:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Euren aitita, German Uriguen Ormaetxea `Etxegiña´, Ermuan jaio zen 1898an. 1924an joan zen Elgoibarrera, Gabilondo lantegian hasi zelako lanean eta bertan ezkondu zen. Bertsolaria eta musikazalea. Saltsa guztietan sartzen omen zen: antzerkian, danborradan, koruan... 1986an hil zen.

2. `Etxegiña´ bertsolaria

- **Erref:** EGB-141/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:02:31. **Bukatu:** 00:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Santa Ageda eskearekin lotzen dute batez ere `Etxegiña´, euren aitita. Beste kontu askotan ere ibili zen, baina beraiek hori ez zuten zuzenean ezagutu. Bat-bateko bertsolaria zen. Bizkaiko bertsolari txapelketetan ere parte hartu izan zuen. Berak abestutako bertsoak edo Santa Ageda eskean kantatzen ziren koplak buruan izaten zituen.

3. Elgoibarko Santa Ageda eskea nola berreskuratu zen

- **Erref:** EGB-141/005
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:04:21. **Bukatu:** 00:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Elgoibarko Santa Ageda eskea nola berreskuratu zen azaltzen dute. `Etxegiña´ Barrutia tabernan zegoen `Estarta´ eta Manu Gabilondo lagunekin eta badirudi apusturen bat egin zutela: bertsoak botaz gero, trukean ardoa emango zietela. Kopla-kantari arituta dirua irabaz zezaketela konturatu ziren eta horrela hasi ziren inguruko baserrietan kantari eta eskean. Hasierako urteetan beraientzat izaten zen jasotako dirua. Handik gutxira EAJren Emakume Abertzaleen Batzari ematen hasi ziren dirua, haiek ume jaioberriei otarretxo ematen zietelako. Azkenean dirua beharra zutenei ematen hasi ziren eta ohitura horrek jarraitu du. Dirua nori eman eztabaidak sortzen zirenez, 70eko hamarkada bukaeratik Caritas-en bitartez bideratzen da kontua.

4. Elgoibarko Santa Ageda eskean koplak eta salbea

- **Erref:** EGB-141/006
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:08:41. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Elgoibarko Santa Ageda eskean ikasitako koplak edo bat-batekoak kantatu izan dira, tokatzen den etxearen arabera. Urtean zehar hildakoren bat egon zen etxeetan erreztatzea zen ohitura garai batean. Euren aititak salbea asmatu zuen eta hildakoren bat egon den etxeetan salbea abesten dute. Hiletetan ere abesten da. Santa Ageda eskea amaitzeko, Errosario kaleko Amabirjinaren aurrean abesten dute osorik. Salbearen lehen bertsoa abesten dute.

5. `Etxegiña´, Santa Ageda eskeko koplaria 1925etik 1980ra

- **Erref:** EGB-141/007
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

1925ean berreskuratu zen Santa Ageda eskearen ohitura. Laster 100 urte beteko ditu, beraz. `Etxegiña´ bera bakarrik ibiltzen zen koplari, harik eta erretiroa hartu zuen arte 1980an. Gero Kepa Urain hasi zen. 2000. urtean, 75. urteurrena ospatzeko, irudi batzuk egin ziren eta logo bezala "Etxegiña taldea" izena erabili zuten.

6. Elgoibarko Santa Ageda eskeko koplen egitura

- **Erref:** EGB-141/008
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:14:44. **Bukatu:** 00:16:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Elgoibarko kaleko Santa Ageda eskeko koplak inguruko herrietakoekin (eta baita Elgoibarko Izarrakoek baserrietan egiten dutenarekin) alderatuz ezberdinak direla diote. Ez dago errepikatzen den lelo bat; jendeak koplariak abesten duen kopla errepikatzen du. Batzuetan arazoa izaten da hori, jende asko dagoenean ez delako entzuten koplariak zer abestu duen.

7. Elgoibarko kaleko Santa Ageda eskea

- **Erref:** EGB-141/009
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:16:31. **Bukatu:** 00:19:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Elgoibarko kaleko Santa Ageda eskea Santa Ageda bezperan egiten zen garai batean. Parte hartzen zutenetako asko Sigmako langileak ziren eta baimena ematen zieten eskean irteteko. Baina gauzak zailtzen joan ziren eta 70eko hamarkadan Santa Ageda egunetik gertuen zegoen larunbatean egitea erabaki zen. Ibilbidea. Azken urteetan bi talde egiten dira auzoetara joateko. Urasandiko elkartean hamaiketako egin ostean kaleko buelta egiten dute denek batera eta, ondoren, bazkaria. Azken urteetan eskoletako umeez ere parte hartu izan dute. Koplariak. Soinu-jotzaileak.

8. Herri osoa pasatzen zuten Santa Ageda eskean

- **Erref:** EGB-141/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:48. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Sebasek gogoan du garai batean nolako antolaketa ona zuten Santa Ageda eskean. Etxeetan tinbreak jo eta barrura sartzen ziren. Herri osoa pasatzen zuten. Aurreko urtean baino diru gehiago batzea izaten zen helburua. Santi Kortabarria zen urtero lanean aritzen zenetako bat.

9. Garai bateko Santa Ageda eskean gizonezkoak bakarrik

- **Erref:** EGB-141/014
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Garai batean gizonezkoak bakarrik ateratzen ziren Santa Ageda eskean. Badirudi garai batean soldadutzara joan behar ziren mutilek egiten zutela Santa Ageda eskea. 80ko hamarkadan jada hasiko ziren neskak parte hartzen. Elkarrekin emakumeak onartzen ez zituzten sasoian euren amak elkartera sartzen ziren Santa Agedako bazkaria ipintzera. Herriko dendariek emandako jatekoa erabiltzen da horretarako. Modesto Larrañagak lan handia egin izan du urtero generoa biltzen.

10. Neskak ere Santa Ageda eskean

- **Erref:** EGB-141/018
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:26:46. **Bukatu:** 00:29:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Urte batzuetan jendea gutxitu egin zen Santa Ageda eskean eta beharbada orduan hasiko zirela emakumeak onartzen aipatzen du Sebasek. Azken urteetan jende gazteagoa sartu da antolaketa-taldean eta hortik ere etor daiteke aldaketa. Garai batean gizonezkoek bakarrik parte hartzea zen ohitura eta emakumeei ziurrenik ez zitzaien bururatuko parte hartu zezaketenik. Emakumeak taldean sartzea naturalki egin zela uste dute. 80ko hamarkadan jada neskek ere parte hartzen zuten.

11. Bi talde Santa Ageda eskean Elgoibarren

- **Erref:** EGB-141/019
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:21. **Bukatu:** 00:30:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Garai batean kale inguruko baserrietara ere joaten zen eskean Santa Agedako kaleko taldea. Gaur egun kalean bakarrik ibiltzen dira. Baserri-auzoetan, berriz, Elgoibarko Izarrako taldea ibiltzen da. Elgoibarko Izarrakoak Santa Ageda bezperan irteten dira beti eta kalekoak, berriz, larunbatean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com